

BERRIKANO

– ARABA / ÁLAVA –

Berrikao herria 14,3 km-ra dago Arabako hiriburutik, iparraldera. Gasteiztik abiatuta bertaratzeko, Altubeko autobidea –lehenago N-633 errepide nazionala– hartu behar da, Gopegiko irteeraraino, eta A-3608 toki-errepidetik 1,5 km egin. Han, eskuinera jo behar da, A-4407 toki-errepidetik, eta 1,3 km eginda iritsiko gara helmugara. Berrikao Gorbeia mendiaren hegaletatik Arabako Lautadara azaltzen diren laborantza-lurren erdigunean dago. Zigoitia udalerrria osatzen duten herrietakoa da, Arratzua-Ubarrundiko ermandadearen eta Zuiako koadrilaren barruan.

Dokumentu historikoen arabera, Berrikao Jerónimo Aznar apezpikuak 1257an egindako gutunean azaltzen zen jada, Tarifako setioaren kanpainaren zioz, 1292an, ekarpenik handienak egin zituzten Zigoitiko hiru herrien artean, Etxabarri-Dibinaren eta Mendarozketaren atzetik. Oparotasun ekonomiko hori XIII. mendean bertan eraikitako tenplu erromanikoaren lerdentasunean eta apaindura aberatsean ere islatzen ziren. Martín Gil Iñizentziatuak 1556an egindako bisitaldiaren garaian, lau onuradunek zerbitzatzen zuten elizan.

Baina ospe eta ahalmen ekonomikoko une hori mende bat geroago amaitu zen, herrian jazo-tako populazio-murrizketaren ondorioz, eta bertako elizaren baliabideetan ere izan zuen eragina, XVIII. mendean hasieran oso apaingarri gutxi eta gurtzarako ezinbesteko gauzak besterik ez baitzuten, parrokiaren inbentarioek erakusten dutenez. Eskasia hori urte batzuk geroago amaituko zen, Zaragozako apezpiku Juan Saenz de Buruagak, Berrikaon jaiok, egindako dohaintzei esker.

La localidad de Berrikano se encuentra situada 14,3 km al Norte de la capital alavesa. Para acceder a dicha localidad tomando como punto de partida Vitoria-Gasteiz, hay que tomar la autovía de Altube, antigua carretera nacional N-622, hasta la salida de Gopegi, y por la carretera local A-3608 recorrer 1,5 km. Ahí se gira a la derecha por la local A-4407 a lo largo de 1,3 km y se llega al destino. Se halla en el centro de las tierras de labor que desde las faldas del Gorbea se asoman a la Llanada Alavesa. Está integrada en el municipio de Zigoitia, en la hermandad de Arrazua-Ubarrundia, formando parte de la cuadrilla de Zuia.

La historia documental nos informa de que Berrikano ya aparecía citada en la carta del obispo don Jerónimo Aznar en el año 1257, y de cómo era uno de los tres pueblos de Zigoitia –después de Echávarri Viña y Mendarozketa– que mayor cantidad había aportado a la campaña del cerco de Tarifa en 1292. Una holgura económica que se reflejaba en la esbeltez y riqueza decorativa de su templo románico, erigido en el siglo XIII. En la visita del licenciado Martín Gil en 1556, servían en la iglesia cuatro beneficiados.

Pero este momento de esplendor y pujanza económica se vio eclipsado por el descenso de población que sufrió la aldea un siglo después y que afectó a los recursos de su iglesia, que a comienzos del siglo XVIII tenía escasos ornamentos y los objetos imprescindibles para el culto, como lo demuestran los inventarios parroquiales. Penuria que cesará unos años más tarde con las donaciones que realiza don Juan Sáenz de Buruaga, arzobispo de Zaragoza y natural de Berrikano.

Andre Mariaren Natibitatea eliza Iglesia de la Natividad de Nuestra Señora

BERRIKAOKO ANDRE MARIAREN JAIOTZA eliza parrokiaren eskumeneko lurretako etxeek inguratutik dago. Kanpoko bolumena ez da erraz hautematen, iparraldeko eta hegoaldeko hormetan geroago erantsitako bi

LA IGLESIA de la Natividad de Nuestra Señora de Berrikano se encuentra rodeada de las casas que conforman la feligresía. Es difícil apreciar su volumen exterior, ya que se encuentra embutida entre dos estancias

gelaren artean sarturik baitago, *Gasteizko Elizbarrutiaren Monumentuen Katalogoan* jasotako eta deskribatutako harburu erromanikoak ezkutuan geratzen direlarik. Hegoaldeko hormaren mendebaldeko angeluan, dorrea dago. Horren materialek kanpai-hormak beste garai batean har-tzen zuen tokia hautematen uzten dute.

Elizaren burualdean, XVI. mendean erantsi ziren bi kaperen artean, Erdi Aroko tenpluaren isurki bikoitzaren aztarnak ikus daitezke. Hor, kanpoaldetik, leihate erromaniko bat ere badago, 1859an Juan Saenz de Buruagaren jauregia eraitsi zenetik, beraren armari barrokoa erakusten duena. Armariaren gainean –leihoa itsutuz– arkibolta erromanikoren bat ezkututzen duen tinpano liso txiki bat dago. Ikus daitekeen hondar erromaniko bakarra, xakeztadura nabarmenduko inposta-lerroan bermatzen diren arkibolta batek eta deskarga-arku batek osaturiko erdi-puntuko arkua da.

Arkibolta dotorezia handiz zizelkaturiko landare-motiboek apaintzen dute: puntak kanporantz iraulita dauzkaten akanto-hosto estilizatuak ez ezik, palma txikiak ere azaltzen dira beheko aldean; horien bolumena hostoen puntetan eratzen diren triangeluek, argi-itzal ederrak sortzen dituen erliebe sakonekoek, nabarmentzen dute. Dobela guztiek jarraitzen diote eskema horri, eskuinaldean inposta-lerroaren gainean dagoenak izan ezik, dobela horretako hostoaren erdian, muturrean fruitu bat daukan zurtoin bat ageri da eta. Xehetasun horrez gain, harriaren tonuera ezberdina kontuan hartzen bada, tenpluaren egikaritzean hainbat eskuk parte hartu zutela eta garai ezberdinetan egin zela ondorioztatzen da, ezinbestez. Deskarga-arkua, oso originala, historiaturia da, eta gorputz eskematikoa eta gorputz-adar luzeak dituzten irudi-mul-tzoak, tailu trauskil eta linealez egindakoak, agertzen ditu.

Ezkerreko lehenengo dobelan, hiru pertsonako talde bat dago. Erdian dagoenak –garrantzitsuena, zalantza gabe– lerro kaligrafikoz egindako bizar laburra du, eliz jantziak daramatzala dirudi, eta kopa handi bati eusten dio eskuekin. Horren bi aldeetako pertsonak tunikaz jantzirik daude; ezkerrekoak liburu bat du eskuartearen, baina eskuinekoa hondatuago dago, eta ez da ondo bereizten. Bigarren dobelan ere ageri dira hiru pertsonaia, aurpegirik gabekoak, narriaduraren eraginez. Erdikoak tunika eta kapa ditu jantzirik, eta ezkerrekoaren eskua du oratuta beretik, bigarren horrek eskuineko eskuan arrain bat duelarik. Beste pertsonaia ere oratuta dago, eta, gerritik zintzilik, ezpata bat daramala dirudi. Lehen begiratuan, irudikatutakoak Jesus, San Pedro arrantzalea eta San Paulo direla esan liteke.


Hirugarren dobelan aurpegiaren alboetan bizarra duen irudi bat da, eta hego ireki handiak irteten zaizkio besoe-

posteriores añadidas a lo largo de los muros norte y sur, ocultando los canecillos románicos, recogidos y descritos en el *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*. En el ángulo más occidental del muro sur se encuentra la torre, cuyos materiales nos permiten apreciar el espacio que en otro tiempo ocupó la espadaña.

En la cabecera del templo, entre las dos capillas que se añadieron en el siglo XVI, están visibles las marcas de la doble vertiente del templo medieval. En ella también se conserva, al exterior, un ventanal románico que, desde 1859, cobija un escudo barroco con las armas de don Juan Sáenz de Buruaga, colocado aquí a raíz del derribo de su casa-palacio. Sobre la piedra armera –cegando la ventana– hay un pequeño tímpano liso que, sin duda, tapa alguna arquivolta románica. Los restos románicos que podemos ver son un arco de medio punto formado por una arquivolta y un sobreaarco que descansan sobre una línea de imposta decorada con un marcado ajedrezado.

La arquivolta está decorada con motivos vegetales elegantemente tallados, a base de estilizadas hojas de acantos con las puntas vueltas hacia fuera, y en la parte inferior pequeñas palmetas, cuyo volumen vemos resaltado por los triángulos que se forman en las puntas de sus hojas, realizados con un profundo relieve que crean un bonito juego de luz y sombra. Esquema que siguen todas las dovelas, a excepción de la que se encuentra a la derecha sobre la línea de imposta que, en el centro de la hoja, muestra un tallo con un fruto en el extremo. Si a este detalle le añadimos la diferente tonalidad que presenta la piedra, nos vemos obligados a pensar, no solo en la intervención de diferentes manos en la ejecución, sino también en un diferente momento temporal. El sobreaarco, muy original, es historiado y presenta grupos con figuras de cuerpos esquemáticos y con largas extremidades, realizadas con talla tosca y lineal.

Empezando por el lado izquierdo, la primera dovela representa un grupo de tres personas. La que está situada en el centro, sin duda la más importante, tiene barba corta de líneas caligráficas, parece llevar vestiduras eclesiásticas y sostiene una copa grande con las manos. Las figuras situadas a ambos lados visten túnica, la de su izquierda sujeta un libro entre las manos, la de la derecha está más estropeada y no se aprecia. La segunda dovela también está compuesta por tres personajes, a los que el deterioro ha hecho perder el rostro. El central viste túnica y manto, y con la mano coge la mano de la figura de la izquierda, quien, a su vez, lleva en su mano derecha un pez. La otra figura también está agarrada y de la cintura parece colgarle una espada. A primera vista se podría decir que estamos ante una representación de Jesús con San Pedro, pescador, y San Pablo.



Ebaketa luzetara / Sección longitudinal

Absideko leihoa / Ventana del ábside



tatik. Hegoen gaisetetik, hazpegi berdintsuak dituzten bi buru txiki azaltzen dira. Hurrengo dobelan, narriadurak eta ondorengo konponketa-lanek eragotzi egiten dute eszena ikustea, eta burutxo bat eta lerro batzuk baino ez dira hautematen. Puntu horretan, deskarga-arkuaren erdigunea dago, iraulketa osatzerainoko jaitsiera hasten delarik. Era horretan, bosgarren dobelaren erdian, elkar besarkatzen duten bi irudi ageri dira, eta horien atzean, bi aldeetan, buruxka-erako bi landare-motibo. Eskerreko hostoan, folioloak beherantz jarrita daude, eta ardatz moduko ebaigunea dute; eskuineko hostoan, berriz, folioloak gorantz azaltzen dira, erdiko nerbioaren alboetan. Seigarren dobelak hiru irudi dauzka: batak, izkina batean, gurutzatzen eta ia belauetaraino heltzen zaizkion beso luze-luzeak ditu, eta beste biek beso luzeak dituzten bilauen arteko borroka irudikatzen dute. Zazpigarrenean, beste hiru irudik osatzen dute taldea: erdikoa, besteak baino pixka bat beherago, jesarrita dagoela dirudi, eskuak buruan dituela; beren alboetan daudenek eutsi egiten diote, eta burua ukitzen diote. Azken dobelari dagokionez, eskuarte zerbaiti oratzen dioten beso batzuk baino ez dira ikusten.

Dobela horien ezaugarri plastiko eta estilistikoek zuzenean lotarazten dizkigute Ondategiko San Lorenzo elizaren burualdean txertatutako kapitelen, edo Eribeko San Martin elizaren hegoaldeko horman dagoenarekin. Era berean, oso interesgarria litzateke eszenetan irudikaturiko istorioen analisi ikonografiko sakonagoa egitea, baina, oraingoz, geroagoko balizko ikerketen zain, egitekoen sailean utziko dugu. Burualdeko leihate erromaniko horrez gain, Erdi Aroaren beste oroigarri bat geratzen zaigu, kanpoaldean. Mendebaldeko hastialari buruz ari gara, zeinetan antzinako teilatuaren isurki bikoitzaren aztarnak oraindik badira. Iparraldeko horman, geroago erantsi zen eta tenpluaren Erdi Aroko jatorrizko horma ezkutatzeko duen aretoa ikusten da.

Tenpluaren barrualdeak eutsi egiten dio Araban hain berezkoa eta ugaria den trantsizioko estilo erromanikoari, nahiz eta horrek ere baduen agerian ondorengo eskuhartzeen emaitza. XVI. mendean presbiterioarekin batera zabaldu eta bi kapera erantsi zitzaion burualde zuzenak eta nabe batek osatzen dute espazio angeluzuzena, kanoi-ganga zorrotzaz estalia. Parpain-arkuek, zorrotzak horiek ere, eta margoz nabarmenduak, silarrien piezakatzea simulatuz, hiru zatitan banantzen dute nabea. Horren hormetan eta sakristiarenetan esekita eta ondo zaindurik, antzinako erretaulako erliebeak mirets ditzakegu. Erretaula XVI. mendean egin zen, eta Ayalatarren eta horien inguruko Gasteizko lantegikoak izan ei ziren egileak.

Garaipen-arkuetako bat pilastretan oinarritzen da; bigarrenari, berriz, pilastrei atxikirik zeuden zutabeak kendu

La tercera dovela es una figura con barba a los lados del rostro y con grandes alas abiertas a los lados que le salen de los brazos. Sobre las alas asoman dos pequeñas cabezas que presentan los mismos rasgos. En la dovela siguiente el deterioro y el arreglo posterior impiden apreciar la escena, de la que solo se puede ver una cabecita y algunas líneas. En este punto se halla el centro del sobreaarco, comenzando el descenso hasta completar el volteo. Así en el centro de la quinta dovela vemos a dos figuras que se abrazan, y tras ellas, a ambos lados, dos motivos vegetales en forma de espiga. En la hoja de la izquierda los foliolos se disponen hacia abajo, con una incisión a modo de eje, mientras que en la hoja de la derecha los foliolos aparecen dispuestos hacia arriba, a los lados de un nervio central. La sexta dovela contiene tres figuras, una en un extremo con unos brazos muy largos que se cruzan y llegan casi hasta las rodillas, mientras que las otras dos representan una lucha de villanos con largos brazos. En la séptima, el grupo está formado también por tres figuras, la central –en un nivel ligeramente inferior– parece estar sentada, con las manos en la cabeza. Las figuras situadas a sus lados le sujetan y tocan la cabeza. De la última dovela solamente vemos unos brazos que sujetan algo entre las manos.

Son unas dovelas cuyas características plásticas y estilísticas podemos poner en relación directa con los capiteles incrustados en la cabecera de la iglesia de San Lorenzo, en Ondategi, o el que se halla en el muro sur de la iglesia de San Martín, en Eribe. También sería muy interesante hacer un análisis iconográfico más profundo de las historias que se representan en las escenas, pero es un tema que de momento queda pendiente, a la espera de posteriores investigaciones. Además de este ventanal románico que se halla en la cabecera, nos queda otra reminiscencia medieval visible en el exterior. Es el hastial de poniente, donde se mantiene la marca de la vertiente a dos aguas del primitivo tejado. En el muro norte vemos la dependencia que se añadió y oculta el auténtico muro medieval del templo.

El interior del templo conserva ese estilo románico, ya de transición, tan característico y abundante en la provincia de Álava, aunque tampoco está exento de intervenciones y maestros posteriores. El espacio rectangular está formado por la cabecera recta que, junto al presbiterio, fue ensanchada con dos capillas laterales en el siglo XVI, y una nave, cubierto todo por bóveda de cañón apuntada. La nave está fragmentada en tres tramos por arcos fajones también apuntados, resaltados con pintura que simula despiece de sillares. En las paredes de la nave y de la sacristía podemos admirar los relieves colgados y bien conservados del antiguo retablo, realizado a finales del siglo XVI, y atribuido al taller vitoriano de los Ayala y su círculo,



Garaipen-arkuko kapitelak / Capiteles del arco triunfal



eta, horien orde, mentsula txiki bana ezarri zaizkien bi kapitelek eusten diote. Ezkerrean, iparraldeko horman dagoen kapitela landare-motiboz apaingurik dago. Oso erliebe lauko hostoak dira, punta kanporantz iraulirik daukatenak, bola bat inguratuz, eta hostoen ertzak eta erdiko nerbioa baino ez daude nabarmenurik, baketoi finen bidez. Aurrez aurreko kapitela gainezarririk dauden eta erdiko nerbioa nabarmenurik daukaten hosto lauez apaingurik dago; hostoak ere inguratzen dute bola bat, goiko angeluan, baina honako honek espiral bat zizelkatuak daukaten bi alde lau ditu. Parpain-arkuetako lehenengoa lau kurbako modiloiekin dago errematurik, nahiz eta era horretako errematea maizago azaltzen den kanpoaldeetan, Betolazako Gure Amaren Jasokundearen elizan edo Audikanako San Joan Bautista elizaren burualdean bezala. Bigarren eta azken parpain-arkua besteak baino estuagoa da alboetan eta estalkian, nabea zabalago egiteko saialdi batean ahuldu bailitza.

Berriko Gure Amaren Jaiotzaren elizako ponteak bai Zigoitian bai Araban maizen ageri den tipologiari jarraitzen dio. Tenpluaren oinaldean dago, korupean, baitaizteko esparruan. Ontzi liso handia du, oin zilindrikoan

Uno de los arcos del triunfal se apoya en pilastras, a modo de contrafuertes, mientras que el segundo lo hace en sendos capiteles a los que han privado de las columnas que, sin duda, estaban adosadas a las pilastras, poniendo en su lugar dos pequeñas ménsulas. El capitel situado a la izquierda, en el lado norte, está decorado con motivos vegetales. Son hojas de relieve muy plano con la punta vuelta hacia fuera cobijando una bola, en las que sólo destacan con finos baquetones los extremos de la hoja y el nervio central. El capitel del lado opuesto se decora con hojas muy planas superpuestas y con el nervio central marcado; también cobijan una bola en el ángulo superior, en este caso con dos caras planas que llevan tallada una espiral. El primero de los arcos fajones se remata en modillones de cuatro curvas, un remate que vemos con más frecuencia en exteriores, como en el caso de la iglesia de Nuestra Señora de la Asunción, en Betolaza, o los de la cabecera de la iglesia de San Juan Bautista, en Audikana. El segundo y último de los arcos fajones parece haber perdido cuerpo, es más estrecho que los otros en los laterales y en la cubierta, como si en uno de los maestros hubiese sido debilitado en un intento de dar mayor anchura a la nave.

bermatua. Oinarria oholtzaren azpian ezkutaturik geratuta, baina, inguruko beste hainbat bataiarritan bezala, karratua dela eta lau angeluetan atzapar moduko zabalgunebana duela ematen du.

Testua eta argazkiak: RHA - Planoak: IAM

La pila bautismal que se conserva en la iglesia de la Natividad de Nuestra Señora en Berrikano sigue la tipología más repetida tanto en Zigoitia como en Álava. Está situada a los pies del templo en el bajo coro, dentro del espacio destinado a tal fin. Es una pila con una gran copa lisa, apoyada en un pie cilíndrico. La base queda oculta bajo el entarimado, pero todo hace suponer que tiene forma cuadrada y ensanchamientos en los cuatro ángulos a modo de garras, en la misma línea que otras pilas bautismales de la zona.

Texto y fotos: RHA - Planos: IAM

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 108-109; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 37, 57, 59; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1995, pp. 384-386, fig. 103-104, 108.